# Memoria
# 2023-2024
# Donostiako Emakumeen Etxea



# Donostiako Emakumeen Etxea

Memoria
2023-2024

2023/2024 ikasturteko memoria.
Donostiako Emakumeen Etxea.

**Edizioa, maketazioa eta diseinua:** Kalaka Koop. Elk. Txikia
**Argazkiak:** Itziar Bastarrika
**Inpresioa:** Leitzaran Grafikak
Donostia 2024

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA ELKARTEA
ASOCIACION CASA DE LAS MUJERES DONOSTIA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN

# Aurkibidea

5 Aurkezpena
6 Emakumeen Etxea
7 Organigrama
8 Elkarrizketa
10 Datu orokorrak
15 Aurrekontua
16 Zerbitzuak
20 Elkarguneak
25 Matraka-guneak
31 Formakuntzarako blokeak
38 Ekintzak



# Aurkezpena

# Emakumeen Etxea

2023-2024 ikasturtean Emakumeen Etxeak bete-betean funtzionatu du. Bazkide gehiago gara eta ahalduntze-taldeekin, tailerrekin eta aholkularitza-zerbitzuekin jarraitzen dugu.

Aurten ere, agerian geratu da programazio feminista eta askotarikoa eskaini behar dela, baita indartu ere, emakumeen beharrak betetzeko. Emakumeen Etxea hartzeko egoitza zabalago baten aldarrikapenak ere indarrean jarraitzen du eta hurrengo memoriarako albiste onak izango ditugulakoan gaude.

Ikasturte honetako aldaketarik garrantzitsuena izan da, zalantzarik gabe, June González Donostiako Emakumeen Etxea Elkarteko dinamizatzaileak proiektu berri bati ekin diola 12 urteko inplikazioaren ondoren. Hutsune handia utzi du, eta faltan botako dugu.

Pertsona berriak ere etorri dira, gure dinamiketan bultzada eta ilusioa berritzen dutenak eta Etxea askotariko emakumeentzako topaketa, prestakuntza, hausnarketa eta ekintzarako gunea izango dela ziurtatzen dutenak.



# Organigrama

EMAKUMEEN ETXEA // CASA DE LAS MUJERES

COMISIÓN DE

## AJEDREZ

- Emakumezko xake jokalariak sortzea eta bultzatzea du helburu talde honek. Trebatzeko nahiz ongi pasatzeko elkartzen dira.

- El grupo tiene como objetivo la creación y el fomento de mujeres jugadoras de ajedrez. Se reúnen en La Casa para aprender y pasárselo bien.

BATZORDEA

## BATUKADA

- Espazio publikoa hartzeko emakume banda
- Ahalmen sortzaileak garatzea
- Banaka eta kolektibo bezala ahalduntzea

- Banda de mujeres para ocupar el espacio público
- Desarrollo de capacidad creativa
- Empoderamiento individual y colectivo

BATZORDEA

## BLOKEA

- Donostiako Emakumeen Etxeko Blokea sortu deialdi feministetan Etxea bezala atera gaitezen
- Bloke bat sortu salaketa feminista desberdinak antolatu eta proposatu ahal izateko, eta Etxea bezala kaleak hartu ditzagun

- Generar un bloque de la Casa de las Mujeres para salir como Casa a las diferentes convocatorias feministas
- Generar un bloke de organización y propuesta de diferentes iniciativas de denuncia feminista para tomar las calles como Casa de las Mujeres de Donostia

BATZORDEA

## ARTIKULAZIOA

- Tailerren proposamenak
- Aurrekontuaren banaketa
- Elkartearen urteroko ebaluazioa

- Propuesta de talleres
- Distribución del presupuesto
- Evaluación anual de la asociación

BATZORDEA

## DANBORRADA

- Donostiako jaietan emakumeen partehartzea sendotu
- Danborrada feminista sortu eta mantendu
- San Sebastian egunean espazio publikoa feminismoz okupatu
- Fortalecer la participación de las mujeres en las fiestas de la ciudad
- Crear y mantener una tamborrada feminista
- Ocupar de feminismo las calles el día de San Sebastián

BATZORDEA

## TEKNOLOGIA

- Emakumeen alfabetatze digitala
- Teknologiaren erabilera kritikoa sustatzea
- Mugimendu feministari tresna digitalak eskaintzea

- Alfabetización digital de mujeres
- Fomentar un uso crítico de la tecnología
- Ofrecer herramientas digitales al Movimiento Feminista

COMISIÓN DE

## ANTIAGRESIONES

- Indarkeria matxistaren inguruko hausnarketa eta ekintza feminista
- Administraziora jotzen duten emakumeen egoera hobetzea

- Reflexión y acción en torno a la violencia machista
- Mejorar la situación de las mujeres que acuden a la administración

BATZORDEA

## ZINEA

- Eztabaida eta hausnarketa feminista sustatu
- Zine feminista jaialdia bultzatu
- Emakume zinegileak ikusarazi

- Generar debate y reflexión feminista
- Impulsar festival de cine feminista
- Visibilizar mujeres cineastas

**KOGESTIOA // COGESTIÓN**
**KUDEAKETA KONPARTITUA // GESTIÓN COMPARTIDA**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Berdintasuna
Igualdad

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA ELKARTEA
ASOCIACIÓN CASA DE LAS MUJERES DONOSTIA

**FINANZATZEN DU // FINANCIA**
**LEGE BABESA // SOPORTE LEGAL**
**EMAKUMEEN MUGIMENDUARI LAGUNTZA**
**APOYO AL MOVIMIENTO DE MUJERES**

**BAZKIDEEN INDARRA // FUERZA DE LAS SOCIAS**
**700 BAZKIDE // 700 SOCIAS**
**PROGRAMAZIOA ETA KUDEAKETA**
**PROGRAMACIÓN Y GESTIÓN**
**MUGIMENDU FEMINISTA HAUNDITU ETA INDARTU**
**FORTALECER Y AUMENTAR MOVIMIENTO FEMINISTA**

# Elkarrizketa

***Etxeko langileen taldeko partehartzaileak:***
*Elieta Blandón, Maribel Bustamante, Xiomara Calix, Yamilet Castillo, Maritza Moreno, Vilma Amparo Serna.*

***SOS Arrazakeriaren dinamizatzaileak:***
*Tatiana Bellorin eta Jone Urionaguena.*

**Nola sortu zen talde hau?**

Taldea Errenterian jaio zen duela bost urte. Etxeetan interna lan egiten dugunontzat topagune bat sortzeko beharra ikusi genuen. Zaintzen ditugun adineko asko menpekotasun handikoak dira, eta, askotan, ez dugu norekin sozializatu. Modu informalean biltzen ginen SOS Arrazakeriaren bulegoan kafe bat hartzeko eta gure kezkak partekatzeko. 2023an, Donostiako Emakumeen Etxean kafe talde bat sortzeko ideia sortu zen.

**Zein da talde honen helburua eta zer eskaintzen dizue?**

Laguntza-sare sendo bat sortzea da helburua, lagunduta sentitzeko aukera emango diguna, gure eskubideak ezagutzeko eta gure eguneroko bizitzan ditugun pozak eta zailtasunak partekatzeko. Espazio seguro bat da non, libre ditugun bi ordu horietan, elkarrekin topo egin, hitz egin eta elkarri indarra ematen diogun. Eguneroko erronkei aurre egiteko ezagutzak, esperientziak eta estrategiak partekatzen ditugu hemen, inor bakarrik senti ez dadin.





Asteartero elkartzen gara, eta kafetxo bat hartzeaz gain, hitzaldi motibagarriak jasotzen ditugu gure lan-egoerak hobeto ulertzeko. Taldeak prestakuntzari eta lan-erronkei nola aurre egin eta gure eskubideak nola defendatu jakiteko aholkuak trukatzea bultzatu du. Horrela, urteak alferrik galtzea saihestu eta gure bizitzak arintzen ditugu.

Iristen garenean bizitza berri bati ekin behar diogu, bizi garen gizartea ezagutu behar dugu, nola integratu, gizarte horrek zer ekarpen egiten digun eta zer ekarpen egin diezaiokegun jakin behar dugu. Irakasle, mediku, erizain eta zaintzaile garen emakumeak ekartzen ditugun jatorrizko ezagutza eta ikaskuntza horiek balorean jartzeko eta partekatzeko balio du talde honek.

**Zein da Donostiako Emakumeen Etxearen zeregina prozesu honetan?**

Donostiako Emakumeen Etxeak, espazio seguru eta abegikorra izateaz gain, aholkularitza eskaintzen du lege gaietan eta langile askoren eguneroko bizitzarako funtsezkoak diren alderdi administratiboetan.

**Zer mezu helarazi nahi diezue etxeko beste langile batzuei?**

Ez daudela bakarrik. Gutako bakoitzak erresilientzia- eta ikaskuntza-istorio bat dakar berekin, eta, bat egiteak, indartu egiten gaitu. Etxeko langileak gonbidatzen ditugu laguntza sare horretara hurbil daitezen, informazioa eman dezaten eta sarearekin bat egin. Sare horretan, esperientziak eta ezagutzak trukatzea da oztopoak gainditzeko motorra. Taldearen ezaugarriak dira enpatia, hobetzeko nahia eta dinamismoa.

# Datu orokorrak

Bisita kopurua: **23.808**

Hileroko bataz bestekoa: **2.164**

Eguneko: **108**

Elkarteko bazkide kopurua: **2.221**

Kogestio bilerak: **5**

**Etxean egiten diren ekintzen berri eman da:**

- Donostiako Gizarte Zerbitzuak auzoetan dituzten bulegoetan, GLUZ (Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua) eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arreta Zerbitzuan, azken hauekin bereziki elkarlan eta harreman estua dugu.
- Donostiako Udaleko Kultur Etxeetan eta Gaztelekuetan.
- Gaztetxeetan.
- Donostiako Anbulatorioetan eta Osasun Mentala, Osakidetza.
- Gurutze Gorria Gipuzkoa.
- Caritas.
- Gizarte bazterketa eremuan, adin txikikoekin, emakumeekin, etab. lan egiten duten erakundeetan.
- Emakumeen Etxea Elkarteko bazkideen artean.
- Hainbat Udaletako Gizarte Zerbitzu, Kultur Sailetan eta Berdintasun sailetan.
- Hainbat Elkarte desberdin.
- Donostiako Udaleko Musika eta Dantza Eskola.

## ESPAZIOEN ERABILERA

**Emakumeen Etxea Elkarteko batzorde eta proiektuak:**

- Demoleedoras Literatura Batzordea
- Emakumeen Etxea elkarteko barne bilerak
- Batukada Batzordea
- "La antiagresiones" Batzordea
- Zine Batzordea
- Artikulazio Batzordea
- Emakumeen Etxeko BLOKEA mobilizazioetarako eta bilerak
- Emakumeen Etxea Elkarteko koordinadora
- Akuerpadoras Batzordea
- Danborrada Feminista
- Koro batzordea

**Emakume taldeak eta talde feministak:**

- Plazandreok
- Zaintza talde motorea
- Emakumeen Etxea Elkartea
- Bilgune Feminista
- Bidez bide
- Donostiako Asanblada Feminista
- Erroak Sartu Emakumeen Taldea
- Zaintzak Erdi Gunera – Euskal Herriko Koordinadora Feminista.
- Lilatoia
- Euskal Herriko Gazte Feministak
- Garaipen
- Bekoz Beko
- Emakumea Surflari
- Talaia Feminista
- Mara Mara

**Donostiako Udalak antolatutako saio eta formazioak:**

- Emakumeak eta Hiria Foroa
- Udaleko langileei zuzendutako autodefentsa feministaren ikastaroa

**Beste erakunde publikoek antolatutako saio eta formazioak:**

- Zantzaileei laguntzeko "Sendian" programa
- G.F.A. Elkarteei zuzendutako dirulaguntzei buruzko aholkularitza.
- G.F.A. Gipuzkoako Berdintasun teknikarien lan guneko bilerak.
- G.F.A. Berdinbidean bilerak

**Ekimenak antolatu dituzten beste erakundeak:**

- Lumaltik
- Erroak sartu
- Arrats
- Mugarik Gabeko Ekonomistak
- Lotura Giza Garapena
- Gira Zapatista
- Mugarik Gabeko Emigratuak
- Bakerako Lankidetza Batzarra
- Agaldeprise
- InteRed
- Asamblea Trabajadoras Gizatzen
- Egoaizia GGKE
- Mundu bat
- Solidaridad Internacional
- Osatzen

2023-2024 ikasturtean 28 ikastaro eta 6 topaketa talde eskaini ditugu. Ikastaroetan 654 emakumek eman dute izena, eta topaketa-taldeetan 115 emakumek parte hartu dute. Zerbitzuei dagokienez, uztailera arte, 979 hitzordu erregistratu dira.

Ohikoa den bezala, erabiltzaileen datu orokorrak aztertuko ditugu, bai zerbitzuei buruzkoak, bai ikastaro eta tailerrei buruzkoak, topaketa-taldeak ere kontuan hartuta, eta batzuen eta besteen artean desberdintasun esanguratsuak badaude, aipatu egingo ditugu. Zerbitzuak erabiltzeaz gain ikastaroetan ere parte hartu duten emakumeen ehunekoa apala da oraindik (%2,35).

Hasteko, erabiltzaileen bizilekuari erreparatuta, ikusten dugu aurreko ikasturteekin alderatuta, Gipuzkoako gainerako lekuetako erabiltzaileen ehunekoak gora egin duela, zehazki %20,13tik % 28,08ra.

**Erabiltzaileen bizilekua:**




* Donostiako datuak kenduta

Adin-tarteak aurreko ikasturtearen antzekoak dira, eta argi eta garbi ikusten da 36 eta 65 urte bitarteko 3 adin-tarteak direla nagusi. 26-35 adin-tartean, erabiltzaile kopuruak behera egin du aurreko ikasturteekin alderatuta; 66-75 adin-tartean, berriz, gora egin du.

**Erabiltzaileen adina:**




Adinaren aldagaian, oraindik ere aldeak daude alde batetik, zerbitzuen eta topaketa-taldeen artean, eta bestetik ikastaro eta tailerren artean. Zerbitzuen eta topaketa-taldeen artean, 36 eta 45 urte bitarteko adin-tartea da nagusi, erabiltzaileen %26 baitago tarte horretan. Era berean, jaitsiera oso nabarmena izan da 56-65 adin-tartean, zerbitzuen eta topaketa-taldeen erabiltzaileen eta parte-hartzaileen %14 soilik baita adin-tarte horretakoa. Alabaina, adin-tarte hori bera (56-65) da ikastaro eta tailerretan ugariena, parte-hartzaileen %26 baita tarte horretakoa. Hala, aurreko ikasturteekin alderatuta, ikastaro eta tailerretako parte-hartzaileen batez besteko

adina 5 urte igo da (egun 53 urtekoa da); zerbitzuen erabiltzaileen batez besteko adina, berriz, 2 urte jaitsi da: egun 43,4 urtekoa da. Beraz, batzuen eta besteen arteko aldea areagotu egin da, eta ia 10 urtekoa da gaur egun.

Egindako ikasketei dagokienez, zifrak aurreko ikasturteetakoen antzekoak dira, unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeak baitira nagusi argi eta garbi (%46). Bigarren postuan bigarren mailako ikasketak egin dituzten emakumeak daude (%23) eta hirugarrenean Lanbide Heziketako ikasketak egin dituztenak (%14).

### Erabiltzaileen ikasketak:




Hala ere, atal honetan ere alde nabarmenak ikusten dira, alde batetik, zerbitzuen eta topaketa-taldeen artean, eta, bestetik, ikastaroen eta tailerren artean. Ikastaro eta tailerretako parte-hartzaileen bi heren (%65) unibertsitate ikasketak dituztenak dira oraindik ere; aldiz, zerbitzuen erabiltzaileen eta topaketa-taldeetako parte-hartzaileen artean, unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeak herena baino ez dira (%33), eta beste heren bat bigarren mailako ikasketak dituztenak dira (%30). Ikastaro eta tailerretan, azken horiek, %12 baino ez dira.

Erabiltzaileen lan-egoerari dagokionez, aurreko urteekin alderatuta, datuak ez dira gehiegi aldatu. Besteren kontura lanaldi osoz kontratatutako emakumeak dira nagusi oraindik ere, %30 baitira, eta bigarren postuan jarraitzen dute langabezian dauden emakumeak, %21 baitira egoera horretan daudenak. Era berean, deigarria da norberaren konturako langileen ehuneko txikia, ez baita %4,5era iristen.

### Erabiltzaileen lan egoera:




Aurreko ikasturtean bezala, emakume gehienek ikastaro batean (%68) edo bitan (%16) eta/edo topaketa-taldeetan parte hartzen dute. Zerbitzuei dagokienez, 2 aldiz edo gehiagotan zerbitzuetara joaten diren emakumeen ehunekoa nabarmen handitzen ari da (%41); horrek esan nahi du Etxeak zerbitzu anitzak eskaintzen dizkiela emakumeei, edo jarraipen bat eskaintzen duela, zerbitzu bera behin baino gehiagotan erabiltzeko.

Erabiltzaileen artean, Emakumeen Etxea elkarteko bazkideen ehunekoa oso antzekoa da (%24). Gainera, bazkide-kopuruari dagokionez, alde nabarmenak daude oraindik ere ikastaroetako eta topaketa-taldeetako parte-hartzaileen (horietatik %43 bazkideak dira) eta zerbitzuen erabiltzaileen (%7 baino ez dira bazkideak) artean.

## Bazkideak:




Erabiltzaileen jatorriari dagokionez, eta datu orokorrak kontuan hartuta, Amerikatik etorritako erabiltzaileen ehunekoak gora egiten jarraitzen du, eta Espainiako estatutik etorritakoen ehunekoak behera. Europako gainerako herrialdeetatik eta Asiatik etorritako emakumeen kopuruak ere gora egin du. Amerika kontinenteko jatorrikoen artean –emakumeen gehiengoa– %20 Kolonbiakoak, %18 Nikaraguakoak eta %17 Hondurasekoak; gainerakoak Venezuela, Peru, Ekuador eta Boliviakoak dira, besteak beste.

## Erabiltzaileen jatorria:




Aldagai hori da, hain zuzen ere, zerbitzuen erabiltzaileen eta ikastaroetan parte hartzen dutenen arteko alderaketa egitean, alderik handiena sortzen duena. Zerbitzuen erabiltzaileen artean, %66 Amerikako kontinentetik dator, eta nazionalitateen arteko banaketa aipatu berri dugunaren berdina da. Aldiz, ikastaroetan parte hartzen dutenen artean, aurreko ikasturteetan gertatu den bezala, %17 baino ez da Amerikakoa, eta %78 Espainiakoa.

*OHARRA: Guztira, 1139 emakumek osatutako unibertsoa izan dugu aztergai. Hala ere, horien guztien fitxa osoak falta ditugunez, alderdi bakoitzerako eskura dugun informazioa aztertu dugu. Horregatik, emakumeen guztizkoa alda daiteke alderdi batetik bestera.*

# Aurrekontua

Hurrengo taulan jaso dugu Donostiako Udalak Emakumeen Etxeari egiten dion ekarpen ekonomikoa. Horrez gain, udaleko langile bat dago Emakumeen Etxeko koordinazio eta dinamizazio lanak egiten lanaldi osoan.

| | |
|---|---|
| **1. Emakumeen Etxea Elkartearekin hitzarmena:** | |
| Hitzarmena Emakumeen Etxea espazioa dinamizatzeko arratsaldetan | **68.000,00** |
| **2. Pertsonala:** | |
| Udal langileak goizetan espazioa dinamizatzen dutenak | **59.813,29** |
| **3. Ikastaroak, ahalduntze taldeak eta zerbitzuak** | |
| Autodefentsa ikastaroak | **2.576,00** |
| Indarkeriarik gabeko Bizitzaren aldeko Emakumeak | **11.410,00** |
| Kultura aniztasuneko taldea | **6.392,00** |
| Literatura taldeak | **4.349,40** |
| Lege aholkularitza | **15.258,10** |
| Laguntza psikologikoa | **13.650,00** |
| Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua eta neska gazteentzako jabekuntza gunea | **11.269,98** |
| Etxeko langileen taldea eta etxeko langileentzako aholkularitza | **13.135,14** |
| Gizarte aholkularitza | **1.127,50** |
| "Iguálate" ikasketak homologatzeko zerbitzua | **10.383,45** |
| Aholkularitza laguntza taldea | **4.235,00** |
| Aniztasun funtzionala duten emakumeen taldea | **7.090,20** |
| "Munstroak hemen dira: lodifobia suntsitzeko lehen pausoak" hitzaldia | **599,10** |
| "Bizikletaz bidaiatzen: bideak ere gureak direlako" | **300,00** |
| "ZtandaP" udako ikuskizuna | **1.573,00** |
| **4. Eraikinaren mantenua** | |
| Gastu korrontea (telefonoa, garbiketa, fotokopiak, argindarra, komunitatea, konponketa txikiak) | **47.733,24** |
| **5. Komunikazioa** | |
| Argazkiak eta bideoa | **4.521,00** |
| Egitarauak: diseinua, maketazioa eta inprenta | **5.665,22** |
| Urteko memoriaren argitalpena: diseinua eta inprenta | **4.259,20** |
| **GUZTIRA:** | **293.607,58** |

Ekarpen honez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere ekarpen garrantzitsua egiten dio Emakumeen Etxea Elkarteari: 40.000 euroko diru laguntza ematen dio, eta horri esker egiten dira emakumeen zine ikustaldiak Antzoki Zaharrean, ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak, hitzaldiak, batukada, denbora bankua, difusio kanpaina, urteroko festa eta abar.




# Zerbitzuak

## Arreta eta bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Etxeko bertako baliabideetara edo kanpokoetara bideratzea.

*Egilea: Emakumeen Etxeko bertako langileak*
*Astelehenetik ostiralera 10:00 – 21:00*
*Hitzordurik gabe.*

## Etxeko langileentzako aholkularitza

Eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak... inguruko aholkularitza.

*Egileak: SOS Arrazakeria*
*Asteartea, 16:30-18:45. Hitzorduarekin.*

*Telefonoz eta aurrez aurre 99 emakumeri eman zaie arreta; horietatik 40 kanpo-erregimenean zeuden, 42 barne-erregimenean eta 11 enplegu-emaileak ziren.*

*Emakume enplegatuetatik 11 Euskadikoak ziren eta 77 atzerritarrak. Jatorrizko herrialdeei dagokienez, latinoamerikar jatorria duten emakumeek gehiengoa izaten jarraitzen dute –bereziki Erdialdeko Amerikakoek–, nahiz eta bertako eta Marokoko, Moldaviako eta Ukrainako emakumeen kopuruak zertxobait gora egin duen.*

*Kontsultak, batez ere, honako hauei buruzkoak izan dira: lan-eskubide orokorrak (soldatak, atsedenaldiak, oporrak, besteak beste), kontratu-deuseztatzeak (kaleratzeak, enplegatzailearen heriotza edo uko egitea), eta horiekin batera, soldata-erreklamazioak edo kalte-ordainak, bajei buruzko informazioa, lan-eskariei buruzko informazioa eta administrazio-izapideei buruzko informazioa (Gizarte Segurantza eta Ogasuna, besteak beste).*

## Gizarte aholkularitza

Askotariko informazioa eta aholkularitza: gizarte laguntzak, etxebizitza, formakuntza edota enplegua.

*Egilea: Rosa Ugalde Urbistondo*
*Ostirala, 10:00-11:30. Hitzorduarekin.*

*Gizarte Laguntzako Programan laguntza-, aholkularitza- eta orientazio-funtzioak bete dira. Halaber, sareko lana egin da Emakumeen Etxeko beste zerbitzu batzuekin eta kanpoko erakundeekin, hala nola Caritasekin, Gurutze Gorriarekin, SOS Arrazakeriarekin, CEARekin, EMAUSekin eta abarrekin.*

*Artatutako emakume askok egoera oso zailak zituzten: baliabiderik eza, langabezia, osasun mentaleko arazoak, osasun-arazoak (fisikoak edo mentalak), etxebizitzarik eza eta indarkeria matxista egoerak, besteak beste.*

*Desgaitasunen bat duten gero eta emakume gehiago hurbildu dira zerbitzura, hain zuzen ere desgaitasuna eskatzeko eskubidea eman lezaketen egoerak dituztenak, baina ez dute eskubide hori aitortzea eskatu, ez baitute informaziorik hori nola egitearen inguruan. Era berean, beren errealitateetatik ihesi dabiltzan gero eta emakume gehiago emakume gehiago iritsi da Emakumeen Etxera: batzuek asilo politikoa eska dezakete, baina beste askok, bizi duten egoeragatik beren herrialdeetatik irten arren, ezin dute hori egin, eta ondorioz, beren egoera asko zailtzen da.*

*Zuzenean artatutako emakumeak: 32 (2023ko irailetik abendura bitartean, 2024an ez da zerbitzu hori eskaini).*
*Jarraipena eta laguntza: 84*

## Laguntza psikologikoa

Aholkularitza, prebentzioa eta ahalduntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak eskuratzen dira.

*Egilea: Maite Santamaría*
*Asteazkena, 10:00-14:00. Hitzorduarekin.*

*Emandako arreta kopurua: 164*
*Ahotik ahokoagatik, BLZtatik, Gizarte Zerbitzuetatik, Osakidetzatik, Lanbidetik, Caritasetatik eta abarretatik iristen dira emakumeak zerbitzu honetara. Horrek agerian uzten du, arreta psikologiko instituzionaleko zirkuitua egin ondoren, edo zirkuitu horretan sartzeko zain dauden bitartean, laguntza behar dutela sendatzeko.*

*Lehentasunezkotzat eta oso garrantzitsutzat jo ahal izan da laguntza eskatzen eta onartzen ikastea, osasungarriak ez zaizkigun jokabideak identifikatzen ikastea, guretzat aberasgarriak diren eta askatasunez mugitzeko aukera ematen diguten harremanak, lekuak eta bizimoduak identifikatzen ikastea, loturak eta harremanak eraikitzeko oinarri gisa, eta mugak jartzen eta marra gorriak identifikatzen ikastea.*

## Entzuteko eta feminismotik jarduteko gunea

Beste norabide bat hartu nahi duten emakumeei zuzendua, eta segurtasun nahiz konfidantzazko gune batean aukerak probatu nahi dituztenentzat.

*Egilea: Maite Santamaria*
*Asteazkena, 15:30-18:30. Hitzorduarekin.*

*41 emakume atenditu dira, 2023ko irailetik 2024ko uztailera arte.*

## Biluzik mundura

Sexualitatearen inguruko informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

*Egilea: Lahia 3.0 sexologia elkartea*
*Astelehena, 17:00-20:00. Hitzorduarekin.*

*2023ko irailetik 2024ko ekainera, 121 kontsulta jaso dira guztira; horietatik 110 emakumeek egin dituzte, 10 gizonek eta 1 bitarra ez den generoko pertsona batek. Bestalde, 55 aurrez aurreko kontsultak izan dira, 52 Instagram bidezkoak eta 14 posta elektroniko bidezkoak. Behin izan ezik, zerbitzua aurrez aurre erabili dutenak emakumeak izan dira.*

*Kontsultak honako gai hauei buruzkoak izan dira: sexu-erasoak, nahi gabeko haurdunaldiak, sexu-harremanak oro har, genero-indarkeria, indarkeria sexista, sexu-jokabide arriskutsuak, neska gazteen ahalduntze-taldeari buruzko informazio-eskaera, sexu-aniztasuna, eta, gero eta gehiago, aurreko gaietako bati lotuta, elikadura-jokabidearen nahasmenduei buruzkoa.*

## Parekatu

Ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak homologatzeko aholkularitza.

*Egilea: Bidez Bide*
*Osteguna, 10:00-13:00. Hitzorduarekin.*

*317 kontsulta egin dira (309 kasutan emakumeak izan dira, eta gainerakoetan 8 pertsona ez-bitarrak), eta artatutakoen adina 26-35 adin-tartean kokatzen da kasu gehienetan.*
*253 Latinoamerikako herrialdeetatik datoz (Nikaragua eta Hondurasetik batez ere, baina baita Kolonbia, Venezuela, Ekuador, Peru eta Brasildik ere ere), eta gainerako 69ak Afrikatik (Aljeria, Maroko, Nigeria eta Senegal), Asiatik (Mongolia) eta Europatik (Espainia, Errumania eta Ukraina).*
*Arrakala digitala oraindik ere arazo bat da;*

*izan ere, Administrazio Publikoarekin egin beharreko izapide guztiak telematikoki egin behar dira, eta, horregatik, laguntza zabaldu egin da, eta emakumeei prestakuntza emateko ordu gehiago eskaini dira, tailer txiki batzuen bidez, izapide horiei aurre egiteko baliabideak emateko.*

*Gainera, aholkularitza jaso duten emakume asko barne-erregimenean dauden etxeko langile gisa ari direnez lanean, arreta zabaldu egin da IKTak erabiliz; izan ere, batzuetan, zailtasunak izaten dituzte aurrez aurreko hitzorduetara joateko.*

*Bestalde, hainbat talderen jarraipenari eta laguntzari eutsi zaio: erizainek osatutako talde bat (12 emakume), medikuek osatutako talde bat (16 emakume) eta beste ibilbide batzuk dituen emakume talde bat (22). Gainera, etxeko emakume langileek eta profesionaltasun-ziurtagiria duten zainketek (mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan) duten beharraren ondoren, ezohiko gaikuntza lortzeko baldintzak betetzen dituzten emakumeei arreta ematen jarraitu da.*

*Nabarmentzekoa da, halaber, 190 emakume bideratu direla Emakumeen Etxeko zerbitzu edo ahalduntze-taldeetara, esku-hartze integrala eskaintzeko.*

## Lege aholkularitza

Familia zuzenbidea. Lanerako zuzenbidea. Atzerritartasuna. Genero indarkeria.

*Egilea: Emakume Bananduen Elkartea*
*Asteazkena, 19:00-21:00. Hitzorduarekin.*

*279 emakume artatu dira, eta horietatik 55ek adierazi dute indarkeria matxistaren eta/edo sexu-erasoen biktima direla. Gainera, aurreko urteetan bezala, kasu batzuetan, batez ere banantzeei edo dibortzioei buruzko kontsultetan, tratu txarrak egon direla hauteman da, nahiz eta emakume batzuek, edo ez duten gai hori jorratu nahi izan, edo ez duten beren bikotekideen aurkako ekintza penalik hasi nahi izan.*

*Kontsulta gehienak Atzerritarren Legeari buruzkoak izan dira. Honako gai hauei buruzko kontsultak ere egin dira: irabazpidezko ondasunen likidazioa, banantzeak/dibortzioak, seme-alaba adingabeen babesa eta zaintza, elikadura-pentsioak ez ordaintzea, bisita-erregimena ez betetzea, jaraunspenak, lan-erregimena ez betetzea (kaleratzeak eta erretiroa), errentamenduak, aitatasuna (aitorpenak edo aurkaratzeak), etab.*

*Gainera, emakume askori laguntza eman zaie hitzordu bat eskatzeko doako laguntza juridikoa jasotzeko edota Atzerritarren Bulegoan edo beste edozein erakunde publikotan hitzordu bat eskatzeko; izan ere, pandemiaz geroztik, izapide asko modu telematikoan egiten dira, eta emakume askok zailtasunak dituzte Internetera sartzeko.*

## Ordenagailu eta Internet zerbitzua

*Astean zehar. Doako erabilera.*
*Ordutegia: 10:00 - 21:00*



# Elkarguneak

# Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeen talde-espazioa da, astean behin biltzen dena (librea). Autolaguntzako taldea da eta, askapenerako gako askotatik, indarkeriari irtenbideak bilatzen dizkio. Emakumeek konfiantzazko leku gisa deskribatzen dute, elkar ezagutzeko eta autoezagutzeko leku gisa, non ahalduntzeko tresnak, barne-saneamendurako tresnak eta beren bizitzaren kontrola berreskuratzeko balio dieten bideak aurki ditzaketen.

*20 eta 66 urte bitarteko 23 emakume bideratu dira gune horretara, era askotariko indarkeriari aurre egin behar izan diotelako, besteak beste indarkeria fisikoari, psikologikoari, sexualari, ekonomikoari, polizialari, sexistari eta lanekoari. Emakumeen Etxeko beste zerbitzu batzuen bidez izan dute gune horren berri edota BLZren bidez, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko zerbitzuaren bidez, kanpoko psikologoek animatuta, anbulatorioen zein oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez edo Emakumeen Etxera gerturatu direlako ezagutu dute espazioa.*

*Erabilitako metodologiak emakumeek zituzten premia eta itxaropenei erantzun die, eta gunean horiek kontuan hartu dira, bai partaidetzari begira, bai prestakuntzari begira ere; hala, emakumeen interesa eta kezka pizten duten gaiak jorratu dira saioetan. Era berean, espazioa emozioetara egokitu da; hala, emakumeak oso atsekabetuta edo triste iritsi direnean, elkarri entzutea eta laguntzea bultzatu da.*

**Parte hartzaileak: 23**
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Donostiako Udala, Berdintasun saila
**Dinamizatzailea:** Hegoaldetik Enarak

# Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea

Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko.

*Askotariko profileko 16 emakumek hartu dute parte taldean. Batez beste, 6-8 pertsona bertaratu dira saio bakoitzera. Normalean, Zoom bidez beste 2 edo 3 emakume gehiago konektatu dira beti. Aurreko ikasturteetan bezala, emakume bakoitzak ikasturtean zehar izandako egoerari oso lotuta egon da parte-hartzea.*
*Aldi berean, banakako eta taldeko lana egin da, eta harekin lotutako hainbat gai landu dira, batez ere, emakumeak ahalduntzeko eta talde-prozesuaren arabera, generoa ikusarazteko.*

**Parte hartzaileak: 16**
**Hizkuntza:** elebiduna
**Antolatzailea:** Donostiako Udala, Berdintasun saila
**Dinamizatzailea:** Rosa Ugalde, Elkartu.

# Jatorri askotariko emakumeentzako kulturarteko gunea

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea da. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta banakakoen eta taldearen lorpenak sozializatzen dituzte. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna eta baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagupen ekintzetan parte hartzen dute.

**Parte hartzaileak: 28**
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Donostiako Udala, Kultura Aniztasuneko Saila
**Dinamizatzailea:** Aitziber Eguzkiza

*28 emakumek parte hartu dute gune honetan eta egindako lana beraien bizitzetan oso onuragarria izan dela adierazi dute. Beren proiektuak aurrera ateratzeko trebezia eta indarra hartu dute eta babestuta sentitu direla adierazi dute, hunkituta. Landutako gaiak hauek izan dira: autoezagutza, indarkeria matxista, arrazakeria eta aurreiritziak, sare elkartasuna, Donostiako eskaintza kulturala eta kirol jarduerak, epe ertainerako proiekzioak (formakuntza, proiektuak, ilusioak) eta migrazio-dolua.*



# Taldeko laguntza psikologikoa

Talde gune bat da, bakarka nahiz gizarte aldetik egoera bereziki zaurgarrian dauden emakumeentzat. Gogoeta egiteko gonbita egiten duen gunea. Eta talde prozesu bat, nortasun tradizional haragitu hori eraldatu eta jasotako kultura-sinesmen, jarrera eta ohituren baliozkotasunari aurre egiteko modua ematen duena.

**Parte hartzaileak:** 14
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Donostiako Udala, Berdintasun saila
**Dinamizatzailea:** Maider Andonegi

*40 eta 75 urte bitarteko 14 emakumek parte hartu dute taldean. Saioetan landu diren gaiak taldeak berak aukeratu dituenak izan dira, hala nola hautatutako edo ezarritako bakardadea, indarkeria matxista, seme-alabekiko harremana, feminismoa, sexu-aniztasuna, autoestimua eta autokontzeptua, depresioa eta antsietatea, arnasketa- eta meditazio-teknikak, eta abar.*

# Neska gazteentzako jabekuntza gunea

Neska eta genero anitzeko gazteei zuzendutako ahalduntze gunea da (15-20 urte bitartekoak). Feminismoarekin, diskriminazioarekin, ahalduntzearekin eta harreman parekideekin lotutako gaiak lantzen dira. Gune hau jabekuntza prozesu bezala planteatzen da.

**Parte hartzaileak:** 10
**Hizkuntza:** elebiduna
**Antolatzailea:** Donostiako Udala, Berdintasun saila
**Dinamizatzailea:** Itsaso Cañada Peña (Lahia 3.0)

*10 neskak hartu dute parte taldean: profil anitzekoak denak eta 16 eta 23 urte bitartekoak. Taldearen kohesioa nabarmendu dute, baita taldearen barruan sortu diren harremanak eta hausnarketak ere. Hainbat gai jorratu dira, hala nola etorkizuneko helburuak, autozaintza, indarkeria sexista, autodefentsa feminista, autoestimua, maitasun erromantikoa, gertatzen zaigunari buruz dugun pertzepzioa, eta abar.*





# Etxeko langileen taldea

Atzerritar jatorriko etxeko langileentzako asteroko topagunea da. Helburua isolamendu soziala haustea eta elkarri laguntzeko eta entzuteko sareak sortzea da.

*Atzerriko jatorriko etxeko langileei babesa eman eta laguntzeko funtsezko ekimentzat jotzen da espazioa, langile horiek etengabeko presioei eta itxaropenei aurre egiten baitiete, bai beren jatorrizko herrialdean, bai harrera-herrialdean.*

*Asteroko topaketa horiek atseden hartzeko eta sozializatzeko une bat eskaintzen dute, konektatzea, esperientziak partekatzea eta laguntza emozionala eta profesionala jasotzea ahalbidetuz, jasaten duten karga arinduz eta esku-hartze komunitarioago batetik beren ongizate integrala sustatuz, eta, aldi berean, antolamendu kolektiboaren garrantziaren kontzientzia sustatuz.*

*Batzuetan tailerrak antolatzen dira edo langileentzat interesgarriak diren gaiak lantzen dira, baina topagune informala izan nahi izan da, bertan askotariko elkarrizketa, proposamen edo kezka partekatu jorratu ahal izateko. Taldea abian jartzea eta sendotzea zaila izan zen, baina gaur egun 15-18 emakumek parte hartzen dute astero, eta espazioaren Whatsapp talde bat ere sortu da, 30 emakumerekin.*

*Maiatzaz geroztik, Lankidetzarako Euskal Agentziaren finantzaketarekin SOS Arrazakeria Gipuzkoa garatzen ari den proiektu baten barnean, hilero, astebetez, etxeko langileen eskola politikoaren modulu bat egiten da gune horretan, hainbat borrokatan aktiboak diren eta ikuspegi intersekzionala duten prestatzaile feministekin. Modulu horretako partaideen %75 emakume migratuak dira.*

**Parte hartzaileak: 18**
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Donostiako **Udala,** Berdintasun saila
**Dinamizatzailea:** SOS Arrazakeria





# Matraka guneak

# Antzerki laborategi feminista

## Aitziber Eguskiza

Kontzientzia fisikoa, emozionala eta politikoa indartzeko gunea izan da hau, antzerkia tresna gisa hartuta. Gure gorputzetan eta bizipenetan ardaztuz, antzerki piezak edo eszenak sortu ditugu taldean, non ahalduntze indibiduala eta kolektiboa gure helburuetako bat izan den.

**Parte hartzaileak:** 23
**Hizkuntza:** elebiduna
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea









# Klown

## Beatriz Egizabal

Askotan ahaztu egiten zaigu jolasa eta barrea gure bizitzetan sartzea. Jolasak berreskuratzeak sentipen berriak ekarri dizkigu ikasturte honetan eta plazerarekin konektatu gaitu, algara arteko talde-harremanak sustatu ditugun bitartean. Klown teknika ezagutu dugu eta hori guztia umorearen ikuspegi feminista barneratuz.

**Parte hartzaileak:** 21
**Hizkuntza:** elebiduna
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

## Batukada feminista

### Ainara Sarasketa

**Parte hartzaileak:** 44
**Hizkuntza:** elebiduna
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

Donostiako Emakumeen Etxeko Sorginbanda batukadak musika ikasteko gune bat sortu zuen, ikuspuntu feminista eta eraldatzaile batetik, non ikasteaz gain, emakumeon parte hartzea bultzatu nahi duen, kaleak gure instrumentuekin eta gorputzekin okupatuz, ekintza aldarrikatzaile desberdinen bidez borroka feminista babesteko.








## Koroa

### Bettina Aragón

**Parte hartzaileak:** 36
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

Borroka ere abesten delako, Donostiako Emakumeen Etxeko taldeko kantu tailerraren proiektuak, Ederlezi abesbatzak, aurrera egin du aurten ere, feminismoak ehunduz ahotsen bitartez eta baita urtero lantzen dituzten abesti aldarrikatzaileen bitartez ere.

# Xakea

## Elisabeth Agirre
## Leire Cruz

Donostiako Emakumeen Etxeko Xakibazi xake taldeak leku berri batzuk ireki ditu ikasturte honetan, lehiaketetan parte hartu nahi izan duten emakumeei zuzenduta, xakean emakumeen presentzia bultzatzeko xedearekin.

**Parte hartzaileak: 27** (bi taldetan)
**Hizkuntza:** elebiduna
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea






# Flamenko feminista

## Askoa Etxebarrieta "La Pulga"

Beste urte batez, talde-giroan flamenkoa dantzatzen ikasi dugu. Aitzakia ezinhobea izan da gorputza eta burua lantzeko, baita beste emakumeekin elkartrukea sortzeko ere.

**Parte hartzaileak:** 32
**Hizkuntza:** elebiduna
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

# IRAKURKETA FEMINISTARAKO GUNEAK

## Irakurle eskola feminista

Zeharkatzen gaituzten bizi- esperientziek, zenbait galdera eta pentsamendu sortzen dituzte gure baitan eta irakurle talde honetan, horiei buruz eztabaidatu dugu pentsamendu feministarako zenbait erreferentziazko lan erabiliz. Euskal kulturaren testuingurua beti gogoan hartuta, zenbait testu eta irakurgaiez baliatu gara eta denen artean irakurritakoa aztertu dugu ekarpenak landuz eta hauek ikuspegi feministatik birpentsatuz.

### Iratxe Retolaza

**Parte hartzaileak: 15**
**Hizkuntza:** euskara
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea



## Errotzeak eta deserrotzeak euskal literaturan

Azken aldian errotze eta deserrotzeen inguruko literatur lan ugari argitaratu dira, guztietan ere pertsonaiek edo ahots literarioek bizi-ibilbideak eta desplazamenduak dituzte mintzagai. Askotariko errotze eta deserrotzeak dituzte hizpide literatur lan hauek: afektiboak, ekonomikoak, politikoak, eta abar. Irakurle-talde honetan errotze eta deserrotzeen inguruko literatur lanak izan ditugu hizpide, betiere genero-ikuspegiak errotzeko eta deserrotzeko modu horiek nola zeharkatzen dituen aztertuz.

### Iratxe Retolaza

**Parte hartzaileak: 20**
**Hizkuntza:** euskara
**Antolatzailea:** Donostiako Udala, Berdintasun saila

## "Alcohólicas y drogadictas" ikastaroa

“Alcohólicas y drogadictas” gaiaren barruan, emakumeei dagokienez, drogen eraginpean sortzen den artistaren estereotipoa nola aldatu den aztertu dugu ikastaro honetan. Emakume idazleen bizitzei buruz eta adikzio horiek fikzioen eta autofikzioen sorreran nola islatzen diren ikertu dugu.

### Mertxe Tranche

**Parte hartzaileak:** 50
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

## "Cambalache" ikastaroa

XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasieratik, emakumezko idazleak literatur mugimendu kolektiboetan sartu ziren, ia lehen aldiz. Cambalachen ibilbide bat egin dugu korronte horietan barrena, Emakume Berriaren mugimendutik hasi eta modernismora edo Harlemgo Errenazimentura arte, eta, gainera, mugimendu horiek modan, jantzietan edo garraiobideetan izan duten eragina aztertu dugu.

### Mertxe Tranche

**Parte hartzaileak:** 31
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzaileak:** Donostiako Udala, Berdintasun saila



## "Beste ahots batzuk" ikastaroa

Ikastaro honetan, beste kontinente batzuetako emakumeak ezagutu ditugu, beste kolore batzuetakoak, beste kezka batzuetakoak, beste begirada eta ahots batzuk dituztenak, ikusten duguna berriro argitzeko gai izan direnak.

### Mertxe Tranche

**Parte hartzaileak:** 49
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Donostiako Udala, Berdintasun saila



# Formakuntzarako blokeak

# Elkar motibatzeko genealogia galduak

Tailer honetan gure genealogia galduetatik gure sasiko gaurkotasuneraino murgildu gara, emakume zapalduenek beti bigarren mailako papera, rol pasiboa, duten historia bakar hori ukatzeko, eta honako galdera hauen inguruan aritu gara: Bigarren Mundu Gerraren eta deskolonizazioaren ondorengo mugimendu feminista itzelean zer egin zuten emakume langileek, lesbianek, beltzek, ijitoek, putek, transexualek, ama ezkongabeek, mojek, eroek, diskek, langabeek? Ez al zuten borrokatzen beren zapalkuntza propio eta espezifikoaren aurka? Ez al zioten ekarpenik egin feminismoari?

**Parte hartzaileak: 27**
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea
**Formatzailea:** Itziar Ziga

# Antzeztutako irakurketak

Tailer honetan literaturatik haratago joan gara, gure buruak kontakizunen protagonista gisa eraikiz eta gorputzetatik feminismoa eginez.

**Parte hartzaileak: 11**
**Hizkuntza:** euskara
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea
**Formatzailea:** Olatz Beobide



# Feminismotik birpentsatu al dezakegu maitasuna? Gure harremanetan praktika askeagoak aztertzen

Tailer honetan gure harremanak idealizatzen dituen maitasunaren eraikuntza kulturala zalantzan jarri dugu. Horretarako, bizi garen testuinguru heteropatriarkal eta kapitalistan naturaltzat eta unibertsaltzat jotzen diren ereduei buruzko hausnarketa kolektiboa egin dugu. Maitasun-diskurtso horren ordezko kontakizunak partekatzeko espazio bat sortu dugu, indarkeriatik urrun dauden harremanetarantz egiten dugun migrazioan laguntzeko.

**Parte hartzaileak: 19**
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea
**Formatzailea:** Laura Latorre

# Generoa desprogramatzen

Emakume izateagatik mundu guztiarekin atseginak eta malguak izatea espero denez, lehendabizi gugan pentsatzeko aukerak ihes egiten digu. Tailer honetan, “lozorro” honetara garamatzaten sinesmenak desmuntatu ditugu eta gorputza, emozioak, desirak eta horiekin batera datozen hitzak entzun ditugu.

**Parte hartzaileak: 7**
**Hizkuntza:** euskara
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea
**Formatzailea:** Clara Wolfram



## Filosofia eta feminismoa: emakume filosofoak arrazoi patriarkalaren aurka

XIX., XX. eta XXI. mendeko pentsalari estatubatuarrekin partekatu ditugu arrazoi patriarkalaren kritikari egindako ekarpenak. Arrazoi horrek emakumeen pentsamendua eta esperientzia baztertu, ikusezin bihurtu eta gutxietsi ditu. Ikastaro honetan hainbat emakumek idatzitako lanez hitz egingo dugu, besteak beste, Soujouner Truth esklabo ohiak, Elizabeth Cady Stanton sufragistak, Lucy Parson eta Emma Goldman anarkistek, bell hook-ek eta Judith Butlerrek eta abarrek idatzitakoez, besteak beste.

**Parte hartzaileak:** 35
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea
**Formatzailea:** Marisa Hurtado

## Xilografia

Xilografia tailer honen xedea emakumeok gure eskuez sortzeko dugun gaitasunari aukera apropos bat ematea izan da. Horretarako, grabatua egiteko antzinako teknika ikasteaz gain, elkarrekin lan egin dugu sormen indibiduala zein kolektiboari bide emateko.

**Parte hartzaileak:** 14
**Hizkuntza:** euskara
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea
**Formatzailea:** Oihana Ugarte



## Elkar zaintzarako biodantza

Tailer honetan, biodantzaren bitartez, sistema patriarkal honek jartzen dizkigun kateak askatzeko lan egin dugu, plazerrari eta autozaintzari lekua emanez.

**Parte hartzaileak:** 17
**Hizkuntza:** euskara
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea
**Formatzailea:** Belén Olaziregi

# Autodefentsa feminista

Eraso matxistei aurre egiten ikastea eta kalean aske sentitu ahal izatea izan da autodefentsa ikastaroen helburu nagusia.



**Parte hartzaileak:** 77
**Hizkuntza:** euskara eta gaztelania
**Antolatzailea:** Donostiako Udala, Berdintasun saila
**Formatzailea:** Isa Bernal gaztelaniaz eta Emagin (gaztelaniaz eta euskaraz)

# Cu-cumbia. Elkarguneetako borrokak: feminismoa eta arrazismoaren aurkako borroka gorputzetik

Cumbia erritmo alaia eta aldarrikatzailea da eta mundu indiarraren, afroaren eta espainiarraren arteko mestizajearen emaitza. Tailer honetan dantzatu dugu, gorputzetik eta gozamenetik gogoeta egiteko gune bat sortu dugu, arrazakeria eta kolonialismoa zalantzan jarri ditugu. Sororitatea sortzeko eta elkarrekin borrokatzeko gune seguru bat izan da sortu duguna.

**Parte hartzaileak:** 23
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea
**Formatzailea:** Emilia Larrondo



# Emakumeak eta adinkeria: ez diezazutela zure ametsak lapurtu!

Adinkeria da gure gizarteko hiru bereizkeria handienetako bat, sexismoarekin eta arrazismoarekin batera. Hausnarketarako gune bat sortu dugu espazio honetan, gure bizitzako etapa guztietan eragiten diguten ideia eta portaerekin hausteko.

**Parte hartzaileak: 17**
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzaileak:** Mara-Mara elkartea eta Gipuzkoako Foru Aldundia
**Formatzailea:** Kontxi López Soria (Mara-Mara Elkartea)

# Tratu onean oinarrituta maitatzea eta zaintzea

Espazio honetan, emakumeen topaketarako eta hausnarketarako talde bat jarri dugu abian; autoezagutza-lana egin dugu, gure bizi-kalitatea hobetzeko, zoriontsuago izateko, zoriontasuna politikoa eta kolektiboa ere badelako.
Tratu onerako leku bat eraiki dugu, geure burua ezagutzeko, geure burua maitatzeko eta onartzeko, geure buruari entzuteko, gure gorputzaren prozesuak (sentsazioak, emozioak, pentsamenduak, portaerak...) ulertzeko, zergatik funtzionatzen dugun funtzionatzen dugun bezala, zer sentitzen dugun eta hori guztia nondik datorren konprenitzeko.

**Parte hartzaileak: 46**
**Hizkuntza:** gaztelania
**Antolatzailea:** Berdintasun saila
**Formatzailea:** Kontxi López Soria (Mara-Mara Elkartea)



## "Munstroak hemen dira: lodifobia suntsitzeko lehen pausoak"

Munstroak gara gizarterako: beldurra digute, beldurra garenari, beldurra noizbait gu bezalakoak izateari. Beldurra ematen ez diegunei, ordea, pena ematen diegu. Beldurra eta pena, gorrotoaren bi oinarriak. Loditasunak pisu handia dauka gaur egun, eta pisu hori daramagunok indarkeriaz armatutako gizarte batean bizirauten dugu.

Hitzaldi honen bidez, sistema lodifoboa ulertu eta haren aurrean zer egiten has gaitezkeen jakiteko lehen pausoak eman ditugu. Horretarako, identitatetik aldarrikatu ditugu loditasuna eta munstrotasuna.

**Hizkuntza:** euskara
**Antolatzailea:** Berdintasun saila
**Formatzaileak:** Mijo Lizarburu eta Itziar Reguero

## "Bizikletaz bidaiatzen: bideak ere gureak direlako"

Ikuspuntu feminista batetik bizikletak daukan garrantzia aztertu, eta bidaiatzeko dakarren gozamenean ipini dugu fokua. Tailerra 50 urtetik gorako emakumeei zuzenduta egon da, bizikletan ibiltzen jakinda eta bizikletaz bidaiatzea nahi arren, oraindik animatu ez direnei alforjak hartu eta bidaiatzeko beste modu hau probatzera.

**Hizkuntza:** euskara
**Antolatzailea:** Berdintasun saila
**Formatzailea:** Bea Azpiri




# Ekintzak



# Iraila

## 19: Zineforum feminista

**“La mujer de la montaña”**
*Moderatzailea: Zine Batzordea.*
*Antolatzailea: Emakumeen Etxeko Zine Batzordea.*




## 27: Tailerra

**“Gorputz anitzak, sentipen kolektiboak”**
**Bakarkako eta taldeko ongizatea sustatzeko baliabide lagungarriak eskuratu nahi dituzten emakumeei zuzendutako tailerra.**
*Dinamizatzailea: Nathalie Bejarano Castro.*
*Antolatzailea: Lumaltik.*

## 27: Liburu aurkezpen-solasaldia

**“Sortze berri bat indarkeria obstetrikorik gabea”**

Mahai-inguruko partaideak:
- Estitxu Fernandez Maritxalar · egilea
- Bakartxo Ormazabal · emagina
- Saioa Baleztena · kazetaria
- Garazi Arrula Ruiz · editorea

*Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea eta Txalaparta.*



# Urria

# Azaroa

## 2: Topaketa

**“Topaketa feminista Euskadiko eta Peruko emakumeekin”**
*Partaideak:*
*Emakumeen Etxeko Koordinakundeko eta Peruko emakume militante feministak.*
*Moderatzailea: Egoaizia*
*Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea eta Egoaizia*
*Kolaboratzaileak: Donostiako Udala*




## 17: Hitzaldia

**“Palestinar erresistentzia”**
*Antolatzailea: Alkarama, emakume palestinarren mugimendua*

## 20: Tailerra

**“Etxeko lanari buruzko tailerra”, enplegatzaileei zuzenduta.**
*Antolatzailea: SOS Arrazakeria*





## 21: Zineforum feminista

**“Las buenas compañías”**
Asun Urbieta, Emakumeen Etxeko militante feministaren parte-hartzearekin, zeinak filmaren produkzio-taldeari lagundu zion.
*Antolatzailea: Emakumeen Etxeko Zine Batzordea*




## 21: Tailerra

**Zaintzazap bizipen tailerra: Indarkeria matxistei aurre egiteko zapatak eta norbere zaintza.**
*Dinamizatzailea: Angélica Naranjo Quiceno, Corporación para la Vida Mujeres que Crean Colombia-ko kidea*
*Antolatzaileak: Corporación para la Vida Mujeres que Crean Colombia eta Mugarik Gabe*
*Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Emakumeen Etxea Elkartea*

## 25: Manifestazioa

**Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna**

“Kolpeek akabatzen gaituzte, prekarietateak ere bai!”

## 28: Tailerra

**“Tratu txarren identifikazio eta prebentzioa desgaitasuna daukaten emakumeengan”**
Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea eta Elkartu




## 30: Greba

**Greba feminista**

# Urtarrila

## 16: Zineforum feminista

**"20.000 especies de abejas"**
*Moderatzailea: Zine Batzordea*
*Antolatzailea: Emakumeen Etxeko Zine Batzordea*




# Otsaila

## 4: Kantujira

**Santa Ageda bezperako kantujira Ederlezi abesbatzaren eskutik.**
*Antolatzailea: Emakumeen Etxeko Abesbatza Batzordea*




## 5: Bilera

**Asanblada Feministak deituta, bilera irekia Martxoak 8 prestatzeko.**
*Antolatzailea: Donostiako Asanblada Feminista*

## 14: Batukadaren irteera

**Batukadaren irteera "San Tontolín" dela-eta.**
*Antolatzailea: Emakumeen Etxeko Batukada taldea, "Sorginbanda"*



## 20: Zineforum feminista

**"El caftan azul"**
*Moderatzailea: Zine Batzordea*
*Antolatzailea: Emakumeen Etxeko Zine Batzordea*




## 22: Tailerra

**"Nola eragiten didate ikasketa-praktikak egiteko araudi-aldaketak?", doako tailer informartiboa.**
*Antolatzailea: Bidez Bide Elkartea*

## 27: Hitzaldia

**"Feminismo komunitarioak Hegoaldetik"**
*Hizlaria: Adriana Guzmán*
*Antolatzailea: InteRed*




## 29: Liburu aurkezpena

**"Autodefentsa Feminista" liburuaren aurkezpena.**
*Idazle eta hizlaria: Maitena Monroy*
*Antolatzailea: Berdintasun Saila*
*Laguntzailea: Erasoen Aurkako Batzordea*





# Martxoa

## 3: Lilatoia

**6.000 emakumetik gora Donostiako kaleetan zehar.**

## 4: Eztabaida

**“Zaintzak bai, zaintzak ez”, eztabaida feminista.**

*Hizlaria: Elene Lopetegi (Bilgune Feminista)*

*Moderatzailea: Begoña Gorospe (Emakumeen Etxea Elkartea)*

*Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea eta Donostiako Asanblada Feminista*




## 8: Manifestazioa

**Emakumeen Nazioarteko Eguna:**

**“Gure bizitzekin negoziorik ez!”**




## 19: Zineforum feminista

**“Las chicas están bien”**

*Moderatzailea: Zine Batzordea*

*Antolatzailea: Emakumeen Etxeko Zine Batzordea*



# Apirila

## 16: Zineforum feminista

**“La sal de este mar”**
*Moderatzailea: Zine Batzordea*
*Antolatzailea: Emakumeen Etxeko Zine Batzordea*

## 30: Hitzaldi parte hartzailea

**“LGTBIfobia indarkeria sistemiko gisa” hitzaldi parte-hartzailea.**
*Hizlariak: Beatriz de Lucas, Elena Olaortua (Aldarte Elkartea)*
*Antolatzaileak: Mundubat Fundazioa eta Emakumeen Etxea Elkartea*
*Laguntzailea: Aldarte Elkartea*




# Maiatza

## 4: Jane Jacobs paseoa

**Jane Jacobs paseoa Alde Zaharretik barrena.**
*Antolatzaileak: Emakumeak eta Hiria Foroa eta Berdintasun saila*

## 8: Bilera irekia

**Bilera irekia**
*Antolatzailea: Denon bizitzak erdigunean*

## 9: Jardunaldia

**“Klima aldaketa eta generoa Afrikan”**
*Antolatzailea: Nazioarteko Elkartasuna*





## 13 eta 16: Jardunaldiak

**“Indarkeria matxista deszifratzen, begibistakotik sotilenera”**

Maiatzak 13, hitzaldia eta solasaldia:
*Nerea Barjola. “Dena da indarkeria, ezer ez baita indarkeria”*

Maiatzak 16, hitzaldia eta solasaldia:
*Ana Beaumont. “Zer da eta nola detektatzen da indarkeria psikologikoa?”*
*Edurne Agirrezabala. Donostiako Udaleko Indarkeria Matxistako Emakumeei Arreta emateko Zerbitzuaren arduraduna. “Administrazioaren baliabideak indarkeria matxistaren aurrean”.*

*Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarteko Erasoen Aurkako Batzordea*
*Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia*




## 17: Inaugurazioa

**Julia Costak, Blokeko kide militante feministak, diseinatutako Emakumeen etxearen ibilbideari buruzko erakusketaren inaugurazioa.**
*Disenua eta muntaia: Julia Costa Maia*
*Argazkiak: Itziar Bastarrika*
*Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea*

## 20: Mahai ingurua

**“Feminismo radikala versus transfeminismoa?”**
*Hizlariak: Aurora Iturrioz eta Ainhoa Lasa*
*Antolatzailea: Plazandreok*

## 21: Zineforum feminista

**“Smoke Sauna Sistehood”**
*Moderatzailea: Zine Batzordea*
*Antolatzailea: Emakumeen Etxeko Zine Batzordea*

## 22: Bilera irekia

**Bilera irekia**
*Antolatzailea: Denon bizitzak erdigunean*

# Ekaina

## 8: Tailerra



**Autodefentsa feminista tailerra.**
*Formatzailea: Emagin*
*Antolatzailea: Berdintasun Saila*

## 11 eta 25: Eskola

**Etxeko langileei zuzendatutako gaikuntza-eskola.**
*Antolatzaileak: Zabaltzen, SOS Arrazakeria eta Emaus.*

## 13: Aurkezpena

**Garuneko paralisia duten pertsonen gida etiko sanitarioaren aurkezpena.**
*Hizlaria: Coro Rubio*
*Antolatzailea: Osatzeneko osasun ekitate ezaren taldea*

## 17 eta 19: Tailerra

**"Sexu heziketa tailerra: sexualitate propioa barrutik kanpora eraikitzen"**
*Antolatzailea: SEDRA (Federación Planificación Familiar)*
*Laguntzailea: Emakumeen Etxea Elkartea*

## 18: Zineforum feminista

**"Slow"**
*Moderatzailea: Zine Batzordea*
*Antolatzailea: Emakumeen Etxeko Zine Batzordea*

## 20: Ikuskizuna

**"ZTANDAP" umorezko ikuskizuna Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarairen eskutik**
*Antolatzailea: Berdintasun saila*

## 24: Eztabaida

**"Amatasun feministak" eztabaida irekia.**
*Dinamizatzailea: Irati Aizpurua*
*Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea*

## 28: Manifestazioa

**Sexu Askatasunaren aldeko Nazioarteko Eguna**



Eskerrik asko

Emakumeen Etxea egiten

duzuen guztioi!

